

Jardunaldiak. Ugalkortasunaren auzia etorkizuneko Euskal Herrian.
2006ko Urriak 20, Bilbo
Gaindegia eta EHUKo Soziologia I Sailsa

Xabier Isasi, Gaindegiako Lehendakariaren amaierako diskurtsoa

Gaztetxea izandako eskarmentuaren eraikin honetan Euskal Herriko demografiaz eta ugalkortasunaz hitz egiteko bildu gara. Irudi bat da, bai, gaztetxea izatetik eskarmentuaren etxea izatera igarobidea, baina hori datorkigu gogora Euskal Herriaren demografiaz eta ugalkortasunaz hitz egiterakoan.

GAINDEGIak jardunaldi hau antolatzerakoan Mila Amurrio, Ane Larrinaga, Amaia Elizagarate eta Marta Luxan, eta hauekin batera Begoña Arregi, laguntza eta gidaritza aurkitu dugu, eta baita UPV/EHUKo Soziologia I Sailarena.

GAINDEGIA, Euskal Herriko ekonomia eta jendartearen garapenerako behategia, oso gizona da, sozio-ekonomiaren kontuak, badakizue. Alabaina, Mila Amurrio eta Ane Larrinaga lagunak GAINDEGIA proiektura hurbildu zirenean eta zer egin zitekeen berbetan hasi ginenean ugalkortasuna eta demografia gaiak ipini zituzten. Martak esan du badirudiela gizona ez daukagula zer ikusi handirik ugalkortasun kontu horietan. Eta kasu honetan, zin dagizuet, arrazoia du. Jardunaldi hau emakumeek ekarri dute eta gizona ikasle etorri gara. Ez da ohikoa.

Ohikoa ez denez naturaltasun osoz izaera honetako jardunaldiak euskaraz egitea. GAINDEGIak ez du bilatu hori horrela izatea. Baina horrela egina dugu, horrela egin dute emakumeek.

Jardunaldiaren mamiari helduz datuen irakurketatik eratortzen den ondorio nagusia, gure aburuz, Euskal Herria nazioa dela da. Hau da, datuek nabarmen erakusten dute Euskal Herriko lurraldeetan adierazle bereizgarriak badirela izan. Bai aldameneko estatu eta herriekiko zein Europako igurumari orokorrean. Datuetan Euskal Herria nazio gisa agertzeak bere alderdi onak eta bere zailtasunak dauzka. Alderdi onak nazio kohesioaren ikuspegitik ulertu behar ditugu. Gaur ikusi ditugun datuen argitan hobeto ulertzen dugu Euskal Herriko jendartearen egitura eta, esan genezake, mundualizazioa eta indarrean dagoen garapen ereduari jarraituz Euskal Herriko herrialdeen arteko diferentziak leuntzen ari direla. Nazioa garelako, esango genuke.

Zailtasunen alderdian, oster, Euskal Herriak harmonizazioa lortzeko dituen gabeziak aipatu behar ditugu. Euskal Herriko herrialdeetan, eta jendartearen, berezko kohesiorako joera antzeman badaiteke datuetan pairatzen dugun zatiketa administratibo-politikoak berezko joera hori galgatzeko du.